6. alea

*Publikako irakasleen informazio boletina*

# IrakaskuntzaCCOOak

*Boletín informativo docentes pública*






1 **AKORDIOAREN SINADURA** / FIRMA DEL ACUERDO

2 **MAHAI SEKTORIALA** / MESA SECTORIAL

3 **JAIOTZAGATIKO LIZENTZIA, HOBEKUNTZAK** / MEJORAS EN LICENCIA POR NACIMIENTO

4 **ORIENTAZIOA OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAN** / FIGURA DE ORIENTACIÓN EN LA FP BÁSICA

5 **LANBIDE HEZIKETAKO MAHAI TEKNIKOA** / MESA TÉCNICA DE FP

6 **SEGREGAZIO MAHAIA** / MESA SEGREGACIÓN

7 **ASAMBLADA LAL- LEKUALDATZE LEHIAKETA** / ASAMBLEA CCTT CONCURSO DE TRASLADOS

## 1 AKORDIOAREN SINADURA / FIRMA DEL ACUERDO

Abenduaren 10ean **CCOOirakaskuntza** Lakuan izan ginen eta maiatzetik bueltaka zegoen akordioan zuzenketan egin ondoren, **sinatu genuen behingoz!**

El 10 de diciembre **CCOOirakaskuntza** estuvimos en Lakua en la mesa sectorial y, tras las correcciones pertinentes, **¡por fin hemos firmado el acuerdo!**



# 2 MAHAI SEKTORIALA / MESA SECTORIAL

Abenduaren 10ean **CCOOirakaskuntza** Lakuan izan ginen eta maiatzetik bueltaka zegoen akordioan zuzenketan egin ondoren, **sinatu genuen behingoz!** Honetaz gain, beste gai batzuk landu genituen. Hona hemen informazio garrantzitsuena:

- ***LAL (lekualdatze-lehiaketa):*** Prozesua abenduaren 17tik urtarrilaren 8ra arte izango da ( gaueko 12ak arte). ADI! Horren inguruko ONLINE asanblada egingo dugu zalantzak argitzeko. **(ABENDUAREN 18an 17.00tan)**

- ***COCU:***
  - Hezkuntza Sailak karrerako funtzionarioen IKHA/COCU prozesua sinplifikatzeko proposamena egin du. Orain arte interinoek eta karrerako funtzionarioen prozesua ezberdina zen, azkeneko hauena askoz korapilatsuagoa izanda. Erreklamazioak eta arazoak ekiditeko asmoz, sindikatuekin batera sistema berria planifikatzeko asmoa adierazi digute. Momentuz erabaki diren aldaketak:
    - Interinoen antzera, hauek ere eskaintza pertsonalizatua izango dute.
    - 2 urtez zentro berdinean egoteko beharra kenduko da.

  - Kolektibo bakoitzaren barruan hurrenkera nola egiten den jakin nahi dugu eta horren inguruko azalpenak eskatu dizkiogu sailari. Hurrengo bilera batean horren inguruko azalpen gehiago emango dizkigute.

- ***ORDEZKAGUNEA:*** oporraldien aurretik azkeneko plaza eskaintza abenduaren 19an egingo da. Urteko lehengo ordezkagunea urtarrilaren 5ean izango da.
  - Ordezkagune horretan, orain arte formakuntzan egon diren euskara koordinatzaileen ordezkapenak aterako dira. Hitzarmenaren ondorioz lortutako Hizkuntza Indartze figura hauek, euskara koordinatzaile lanetan egongo dira kurtsoa bukatu arte. (pilotajea).
  - Kontratu mozketak: Gabonetako oporraldian ez dira kontratu mozketarik egingo. Titularra bajan jarraitzen badu ordezkoa kontratupean jarraituko du ere.

- ***NORBERAREN EGINKIZUNAK (asuntos propios):*** Orain arte norberaren eginkizunetarako egun bat hartu ahal izateko, azkeneko urtea lanean egon behar zinen, etenik gabe. Horregatik ordezko askok ezin zuten holako baimena eskatu kontratu mozketak edo kontraturik gabeko egunak izaten zituztelako.
  - **CCOOirakaskuntzak** pertsona hauentzako irtenbide bat bilatzea eskatu du, bakantedun interinoek edo karrerako funtzionarioek bezala, egun bat eskatzeko eskubidea izateko. Sailak gure eskaera aztertu eta baldintzak malgutu ditu: **hemendik aurrrea zerbitzu orrian 360 egun lan eginda badituzu, nahiz eta jarraian ez izan, baimen hau eskatu ahalko duzu.**

- ***ALE:*** Sailak jakinarazi digu urtarriletik aurrera ALE irakasle gehiago txertatuko direla beharra dagoen kasuetan, hau da, errefortzuak ikasle asko edo zentro asko dauden kasuetan.Oraindik ez dizkigute baldintza zehatzak bidali, baino ibiltarien baldintzen inguruko negoziaketa bilera bat izango dugu oporraldien ondoren.

- ***HERIOTZAGATIK BAIMENA:*** Heriotza lanaldia amaitu ondoren gertatzen bada, baimena hurrengo egunetik aurrera zenbatzen dute eta lanaldia bitartean gertatzen bada egunean bertan zenbatzen hasiko dira. **Berria:** egunak ez dira zertan jarraian hartu behar.

- ***OSPITALERATZEAGATIK BAIMENA:*** Baimen egunak jarraian hartzen badira ( eskaera bakar batean), eta asteburua erdian badago, asteburuko egunak ez dute zenbatzen baimenean, baino ordezkoak puntuatu eta kobratzen ditu. Aldiz, egunak solte eskatzen badira (2 eskaera egiten badira), eta asteburua bi eskaeren artean badago, ordezkoek ez dute asteburua kobratzen ezta puntuatzen ere.
  - Beraz, holako kasuetan **eskaera bakarrean** egitea gomendatzen dugu, titularrak ez dituelako egunak galtzen eta ordezkoak asteburua puntuatu eta kobratu egingo duelako.
  - Ospitalaratzean baldintza bereziak:
    - Hilabete berdinean 2 baimena eskatu ahal izango dira egoera hauetan:
      - senide ezberdinengatik badira.
      - ospitaleratze baten ostean, etxera joan, eta handik egun batzuetara berriro ospitaleratzeko beharra badago.
      - Senide berdina hilabete bat baino gehiago ospitalean badago, lehenengo 5 eguneko baimenatik hilabete bat pasatzen bada, berriro eskatu daiteke baimen berdina.

- ***EIZU:*** Plataformarekin eta baimen ezberdinekin suertatzen diren arazoak argitzeko, kontakturako pertsona bat izatea eskatu diogu Hezkuntza Sailari. Momentu honetan eskaintzen den arreta eraginkorra ez delako eta sindikatuok irakasleek dauzkaten kezkak ahalik eta azkarren argitu nahi ditugulako.

- ***FUSIOAK:*** Argi geratu da sindikatuoi ez zaigula fusio proiektu guztien berri ematen eta zentro batzuen etorkizunaren inguruko kezka handia dago. Sailari egoera garbi azaltzeko bilera bat eskatu diogu .

El 10 de diciembre **CCOOirakaskuntza** estuvimos en Lakua en la mesa sectorial y tras las correcciones pertinentes, **¡por fin hemos firmado el acuerdo!** Además de eso, hemos tratado otros temas. Aquí tenéis la información más importante:

- ***LAL/CCTT (concurso de traslados):*** El proceso estará abierto desde el 17 de diciembre hasta el 8 de enero (hasta las 12 de la noche) ADI! Haremos una asamblea ONLINE para aclarar dudas al respecto. **(El 18 de DICIEMBRE a las 17.00)**

- ***COCU:***
  - El Departamento propone simplificar el proceso IKHA/COCU de los funcionarios de carrera. Hasta ahora el proceso de interinos y funcionarios de carrera era diferente, siendo el de estos últimos mucho más complicado. Con el fin de evitar reclamaciones y problemas, nos trasladan su intención de planificar junto con los sindicatos un nuevo sistema. De momento, estas son las modificaciones acordadas:
    - Al igual que los interinos, también contarán con una oferta personalizada.
    - Se eliminará la obligación de permanecer 2 años en el mismo centro.

  - Queremos saber cómo se establece el orden dentro de cada colectivo y hemos pedido explicaciones al Departamento al respecto. En una próxima reunión nos darán más datos.

- ***ORDEZKAGUNEA:*** La última oferta de plazas será el viernes 19 de diciembre. El primer ordezkagunea del año será el día 5 de enero.
  - En ese primer ordezkagune se ofertarán las plazas para sustituir a los/as coordinadores/as de euskera que han estado en formación hasta ahora. Estas figuras de refuerzo lingüístico conseguidas a raíz del acuerdo estarán realizando el pilotaje como coordinadores/as de euskera en algunos centros.
  - Cortes de contratos: No se interrumpirán contratos durante las Navidades. Si el titular sigue de baja, el sustituto seguirá bajo contrato.

- ***ASUNTOS PROPIOS:*** Hasta ahora, para poder disfrutar de un día de asuntos propios, se tenía que haber estado trabajando el último año de forma ininterrumpida. Por eso muchos/as sustitutos/as no podían pedir ese permiso al tener cortes de contrato o días sin contrato.
  - **CCOOirakaskuntza** ha pedido que se busque una solución para estas personas que, al igual que los interinos con vacante o los funcionarios/as de carrera, tengan derecho a pedir un día si lo necesitan. El Departamento ha analizado nuestra solicitud y ha flexibilizado las condiciones: **a partir de ahora, si llevas trabajados 360 días en la hoja de servicios, aunque sea de forma interrumpida, podrás solicitar este permiso.**

- ***ALE:*** El Departamento nos ha informado de que a partir de enero se incorporarán más profesores/as ALE en aquellos casos en los que sea necesario por el número de alumnos/as o número de centros. Todavía no hemos recibido las concreciones al respecto, pero tendremos una reunión para negociar las condiciones de las plazas itinerantes.

- ***PERMISO POR FALLECIMIENTO:*** Si el fallecimiento de un familiar se produce después de la finalización de la jornada laboral, el permiso se cuenta a partir del día siguiente y, si se produce durante la jornada laboral, se empezará a contar ese mismo día. **Novedad:** Los días no deben disfrutarse obligatoriamente de forma continuada.

- ***PERMISO POR HOSPITALIZACIÓN:*** Si los días de permiso se disfrutan de forma continuada (en una única solicitud) y el fin de semana está entre medio, los días del fin de semana no computan en el permiso pero el sustituto sí que los puntúa y los cobra. En cambio, si los días se piden sueltos (2 solicitudes) y el fin de semana está entre las dos peticiones, los sustitutos no cobran ni puntúan el fin de semana.
  - Por tanto, se recomienda que en estos casos se haga en **una única solicitud**, ya que el titular no pierde días y el sustituto puntuará y cobrará el fin de semana.
  - Condiciones especiales de hospitalización:
    - En el mismo mes se podrán solicitar 2 permisos en los siguientes supuestos:
      - si son por distintos familiares.
      - si, tras un ingreso hospitalario, se regresa a casa y a los días es necesario un nuevo ingreso.
      - cuando el mismo familiar está hospitalizado más de un mes, si ha trascurrido un mes desde los 5 días de permiso, se puede volver a solicitar el mismo permiso.

- ***EIZU:*** Para aclarar problemas con la plataforma y con los diferentes permisos, hemos solicitado al Departamento de Educación tener una persona de contacto. La atención que se ofrece en este momento es ineficaz y los sindicatos necesitamos aclarar lo antes posible las dudas que tiene el profesorado sobre este tema.

- ***FUSIONES:*** Queda claro que a los sindicatos no se nos está informando de todos los proyectos de fusión que hay en marcha y hay mucha preocupación por el futuro de algunos centros. Se ha solicitado al Departamento una reunión para aclarar esta situación.

## 3 JAIOTZAGATIKO LIZENTZIA, HOBEKUNTZAK / MEJORAS EN LICENCIA POR NACIMIENTO

Maiatzeko akordioan jaiotzagatiko baimena asko hobetu arren, azkeneko egunetan artikulu batzuk zehazteko bileraren ondorioz, **guraso bakarreko familien kasuan** Eusko Jaurlaritzak ematen dituen **hobekuntzarako asteak 13 izango dira** (aplikatzeko data Maiatzaren 10tik aurrera). Modu honetan jaiotzagatiko baimena horrela geratuko litzateke:

A pesar de la importante mejora del permiso por nacimiento en el acuerdo de mayo, fruto de la reunión de concreción de algunos artículos, las semanas de mejora que concede el Gobierno Vasco en el caso de las f**amilias monoparentales se amplia a 13 semanas** (fecha de aplicación a partir del 10 de Mayo). Así, el permiso por nacimiento quedaría de la siguiente manera:

| ***BI GURASOKO FAMILIAK / BIPARENTALES*** | | ***GURASO BAKARREKOAK / MONOPARENTALES*** | | Gizarte Segurantzak/ Seguridad Social<br>Eusko Jaurlaritza/ Gobierno Vasco |
|---|---|---|---|---|
| Nacidos entre **2024/08/02tik 2025/07/30**era arte jaiotakoak | Nacidos a partir del **2025/07/31tik** aurrera jaiotakoak | Nacidos entre **2024/08/02tik 2025/07/30**era arte jaiotakoak. | Nacidos a partir del **2025/07/31tik** aurrera jaiotakoak | |
| 6 | 6 | 6 | 6 | Derrigorrezkoak eta jarraian / Obligatorias y seguidas |
| 10 | 11 | 20 | 22 | Borondatezkoak 12 hilabete bete arte / Voluntarias hasta los 12 meses |
| +2 | +2 | **+13*** | **+13** | Jaiotzean kontratupean bazaude, lan- akordioaren hobekuntzako asteak / Las semanas de mejora del acuerdo, si en el momento del nacimiento estás bajo contrato |
| +2* | +2 | +2* | +2 | Borondatezko aste guztiak jarraian hartzen badira (a+b+c) / Si se cogen todas las semanas anteriores de manera continuada (a+b+c)<br>*Bakarrik 2025eko maiatzaren 10etik aurrera jaio direnentzat<br>*Solo para nacidos después del 10 de mayo de 2025 |
| 2 | 2 | 4 | 4 | Haurrak 8 urte bete arte / Hasta que el niño/a cumpla 8 años |

## 4 LANBIDE HEZIKETAKO MAHAI TEKNIKOA / MESA TÉCNICA DE FP

- 🛠️Asteartean, hilak 10, **CCOOirakaskuntzak Lanbide Heziketako bilera teknikoa:** aurrerapausoik gabe
- ⚠️ Sailburuordetzak metodologia eta borondate faltak erakusten ditu LHko arazoak konpontzeko.
- 📅 Ikasturte hasierako Ebazpenari eta OLHri buruzko bilera ez produktiboa izan zen. Hurrengo bilera: urtarrila.
- 📝 CIFPetako gure alegazioak erantzunik gabe jarraitzen dute eta zentroek zirriborro itxi gaberekin ari dira lanean.
- 🎓 OLHn gai garrantzitsuak ia ez ziren jorratu: baliabideak, plangintza, HPB/NEAE, tailerrak, orientazioa…
- 🧭 **Orientazio-plaza espezifikoa** eskatzen dugu OLH duten zentroetan.
- 📢 Jarraibideak zuzendaritzetara soilik iristen jarraitzen dute, desberdintasunak sortuz.
- ✅ Metodologia erreal, gardentasun handiagoa eta aldaketarako borondatea eskatzen dugu.

- 🛠️ El día 10 **CCOOirakaskuntza** participamos en la **reunión técnica de FP;** tristemente**,** sin avances
- ⚠️ La Viceconsejería evidencia falta de metodología y voluntad para resolver los problemas de la FP.
- 📅 La reunión sobre la Resolución de inicio de curso y la FPB fue improductiva. Nueva cita: enero.
- 📝 Nuestras alegaciones sobre los CIFPs siguen sin respuesta y los centros trabajan con un borrador sin cerrar.
- 🎓 En FPB apenas se abordaron temas clave: recursos, planificación, NEAE, talleres, orientación…
- 🧭 Exigimos **orientación específica** en centros con FPB.
- 📢 Las instrucciones siguen llegando solo a direcciones, generando desigualdades.
- ✅ Pedimos metodología real, transparencia y voluntad de cambio.

**Emailean erantsitako fitxategian zabaldutako informazio guztia /**
**Toda la información ampliada en el fichero adjunto de este email.**

# 5 ORIENTAZIOA OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAN / FIGURA DE ORIENTACIÓN EN LA FP BÁSICA



**CCOOirakaskuntza** LHko mahai teknikoan zehar Hezkuntza Sailari eskatu diogu:

Oinarrizko Lanbide Heziketa duten ikastetxe integratuetan maila horretarako **orientazio-plaza espezifiko bat izatea**, ikasleen ratioagatik Erdi Mailarako eta ZIG gelarako beste orientatzaile bat izan ala ez.

Durante la mesa técnica de FP **CCOOirakaskuntza** ha solicitado al Departamento de Educación que:

en los centros integrados con FP Básica **se cuente con una plaza de orientación específica** para ese nivel, independientemente de que por ratio de alumnado se cuente con otro/a orientador/a para el Grado Medio y AAT.

# 6 SEGREGAZIO MAHAIA / MESA SEGREGACIÓN




Joan den abenduaren 10ean, **CCOOirakaskuntza** Hezkuntza Sailak segregazioaren aurkako Itunaren baitan deitutako *"Eskola bikaina denontzat"* lan-mahaian izan zen. Bertan gizarte-eragile desberdinen ordezkariek parte hartu zuten.

***HELBURUA:*** Saioaren **helburua** izan zen bertaratutako guztiek hiru ardatz nagusiei buruz gure ekarpenak egitea:

- eskola-arrakasta sustatzea,
- hezkuntza-eskaintza eta eskolatzea kudeatzea eta familia, eta
- administrazioen arteko jarduera bateratuko politikak.

***PROPOSAMENAK:*** Sailak ardatz bakoitzerako **proposamen-irtenbide orokor batzuk** aurkeztu zituen, talde-dinamika baten bidez lantzeko. Eztabaidatzeko aukerarik handirik gabe eta puntu bakoitza sakontzeko denbora oso urriarekin, **CCOOirakaskuntzak** bere jarrera argi utzi zuen, eskola-segregazioaren aurkako borrokan funtsezkoak diren hainbat gairi buruz **neurri zehatzak proposatuz**: ikasle etorri berriek euskara eskuratzeko programak eta baliabideak indartzearen beharra, edo matrikulaziorako leiho bakarra ezartzea, kudeaketa publikoa bermatuz; betiere, arazo hau arintzeko irtenbide bakartzat hezkuntza publikoaren aldeko apustua dugula azpimarratuta.

***FUSIO-PROZESUAK:*** Era berean, fusio-prozesuak gauzatu zituzten bi ikastetxeetako arduradunen testigantzak entzuteko aukera izan genuen. Haien arabera, prozesuaren berezko zailtasunei aurre egiteko Sailaren etengabeko laguntza funtsezkoa izan zen prozesua modu arrakastatsuan amaitzeko. **CCOOirakaskuntzak**, ordea, beste hainbat fusio-prozesutan ere kontrastatu dugu langileek eta familiek salatutako lankidetza falta eta gardentasun eza; horren adibide esate baterako, Adurtza eta San Ignacio ikastetxeen arteko fusioa.

El pasado 10 de diciembre **CCOOirakaskuntza** asistió por cuarta vez a la mesa de trabajo "*Eskola bikaina denontzat*" convocada por el Departamento en el marco del *Pacto contra la segregación escolar* y en el que participaron representantes de diferentes agentes sociales.

***OBJETIVO:*** El **objetivo** de la sesión era que todos los presentes hiciéramos nuestras aportaciones sobre tres ejes fundamentales:

- el fomento del éxito escolar,
- la gestión de la oferta educativa escolarización y la familia y
- las políticas de actuación conjunta entre administraciones.

***PROPUESTAS:*** El Departamento presentó una serie de **propuestas-solución generales** para cada uno de estos ejes y, en una dinámica de grupos. Sin demasiada opción para el debate y con muy poco tiempo para poder profundizar en cada uno de los puntos y emitir un juicio crítico, **CCOOirakaskutza** dejó patente su posición **aportando medidas concretas** en algunos de los temas más importantes en la lucha contra la segregación escolar como la necesidad de impulsar los programas y recursos para la adquisición del euskera para el alumnado recién llegado o la necesidad de una ventanilla única de matriculación gestionada desde lo público, siempre desde la perspectiva de que la única solución que creemos viable para paliar este problema es la apuesta por la educación pública.

***PROCESOS DE FUSIÓN:*** Asimismo, tuvimos ocasión de escuchar los testimonios de los/as responsables de dos centros que habían realizado sendos **procesos de fusión**. Según su relato, el apoyo constante del Departamento a la hora de afrontar las dificultades intrínsecas al proceso fue clave en que estos se culminaran con éxito. **CCOOirakaskuntza** contrastamos con otros casos de colegios inmersos en procesos de fusión en los que se ha denunciado por parte del personal y de las familias la falta de colaboración del Departamento y la ausencia de transparencia; es el caso de la fusión entre el colegio de Adurza y el de San Ignacio, por ejemplo.



## 7 LAL ASAMBLADA 2026 / ASAMBLEA CCTT






Asanbladaren esteka jaso nahi baduzu egin klik hemen

Para recibir el enlace de la asamblea CCTT, pincha aquí

Bileran sartzeko esteka

- Asanbladaren egunean bertan gonbidapena jasko duzue goiko estekan emandako emailean.
- Ez baduzu informaziorik galdu nahi, gure kanalak jarraitu!

- El mismo día de la asamblea recibiréis la invitación en el e-mail facilitado en el enlace de aquí arriba.
- Si no quieres perderte nada de información, ¡sigue nuestros canales!

Whatsapp kanala   Telegram kanala   Instagram kanala

**Síguenos en RRSS/ Euskal hezkuntza publikoko irakaslen intereseko berri eta albiste guztien CCOOirakaskuntza sindikatuaren informazio-kanala** |

- #iPublikoa #iCCOOeus
- https://t.me/irakasleak_iCCOO
- https://whatsapp.com/channel/0029Vb7Cwfp4SpkKZQgBDs2I
- https://www.instagram.com/ccooirakaskuntza?igsh=MTF3MG84ZnVkbmRldg==